



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

EKONOMIA, LAN ETA
EMPLEGU SAILA

DEPARTAMENTO DE ECONOMÍA,
TRABAJO Y EMPLEO



ZainLab
HUB

**ENPLEGUAREN ETA GAITASUNEN PROSPEKZIO- ETA PROSPEKTIBA-
SISTEMA ZAINZAREN ETA BIZITZA LUZERAREN EKONOMIAN**

ONDORIOEN TXOSTENA

2024ko Urteko Txostena


A. AZTERKETAREN XEDEA

Xede orokorra

GAUR EGUNGO EGOERAREN ETA
ETORKIZUNeko AUKEREN **IKUSPEGI INTEGRALA**
ETA ZEHATZA ematea **ZAINZAREN ETA BIZITZA**
LUZERAREN EKONOMIAN (aurrerantzean,
ZBLE), **ENPLEGUARI** eta **PRESTAKUNTZA-**
BEHARREI dagokienez

Xede zehatzak

- 01** Enpleguaren, gaitasunen, gaikuntzen eta ZBLEaren arloko prestakuntza-beharren prospekzioari buruzko **INFORMAZIO SISTEMA** bat sortzea.



- 02** **INFORMAZIOA** eta datu objektibo eta eguneratuak **INTEGRATZEA HAINBAT ITURRITATIK**, estatistika ofizialetatik eta proiektuaren markoan abian jarritako berezko beste iturri batzuetatik.

- 03** ZBLEaren arloan lan enplegurako **epe laburreko, ertaineko eta luzeko AGERTOKIAK** identifikatzea, informazio hori guztia lan-merkatuarekin eta ZBLEaren arloko prestakuntzarekin lotutako jardueri buruzko erabakiak hartzeko ezagutza bihurtuz.

“FUNTSEZKO” DIREN LANBIDEETARAKO SAILKAPEN OFIZIALIK ETA ESPEZIFIKORIK EZ IZATEA, hala nola "Gerokultoreak", "Etxez etxeko laguntzaileak" eta "Etxeko langileak zaintza-lanetan". Lanerako gerturatzea eraiki egin behar da.

Zailtasunak

.Datu-base ofizialetan (CNO eta CNAE) definizio argirik ez izateak konplikatu egiten du azterketa-eremua zedarritzea.

“FUNTSEZKO” DIREN LANBIDEETARAKO SAILKAPEN OFIZIALIK ETA ESPEZIFIKORIK EZ IZATEA, hala nola "Gerokultoreak", "Etxez etxeko laguntzaileak" eta "Etxeko langileak zaintza-lanetan". Lanerako gerturatzea eraiki egin behar da.

DATUEN HARMONIZAZIOA: informazioa sailkapen, multzo eta “nomenklatura” desberdinetan eta desagregazio-maila desberdinetan.

GAITASUNEN ESKARIA: enpresen gaitasun eskariari eta langileen prestakuntza-beharrei buruzko informazioa lortzeko zailtasuna.

JARDUERA-ANIZTASUNA: egoitzetan adinekoak zaintzeko eta artatzeko gizarte-zerbitzuak, ostaturik gabeko zerbitzuak (EELZ) eta etxeko lana barne hartzen ditu.

INFORMAZIOAREN DISPERSIOA: informazio garrantzitsua hainbat iturri eta datu-basetan sakabanatua, ZBLErako iturri bateratu espezifikorik gabe.

EPE ERTAINEKO PROSPEKTIBA: enplegu-eskariari eta -eskaintzari buruzko proiektzio zehatzak egiteko zailtasuna, egoera ekonomikoa eta gizarte-fenomenoak direla-eta.

IKERKETAREN ONDORIOAK ETA GOMENDIOAK



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

EKONOMIA, LAN ETA
EMPLEGU SAILA
DEPARTAMENTO DE ECONOMÍA,
TRABAJO Y EMPLEO

1. ENPLEGU-BEHARREN AZTERKETA ZAINZAREN ETA BIZITZA LUZERAREN EKONOMIAN

- JEGID Jarduera Ekonomikoen Gidazerrendaren (Eustat) datuen arabera, **adinekoentzako ostaturik gabeko gizarte-zerbitzuetako jarduerak % 46 hazi dira azken hamarkadan**, baina adinekoentzako egoitza-establezimenduetako jarduera % 14 murriztu da.
- 2013 eta 2023 artean, Gizarte Segurantzaren Estatistiken arabera, adinekoentzako egoitza-jardueretako afiliazioa % 57 hazi zen, adinekoentzako osaturik gabeko gizarte-zerbitzuetakoa % 43, eta etxeko langileen enplegatzaile gisa egiten diren etxeetako jardueretakoa % 3.
- 2023an, eraikitako hurbilketa propioan oinarrituta, 4.522 pertsona inguru aritu daitezke Gerokultore lanetan Euskadin adinekoentzako egoitzetan; 3.647 pertsona inguru adinekoen etxez etxeko laguntzaile gisa; eta 9.020 pertsona inguru etxeko langile gisa adinekoen zaintzan.
- **ZBLEaren jarduera espezifikoetan, emakumeen okupazioa da nagusi.** Ehunekoak % 76 eta % 93 bitartekoak dira, INEk egiten duen Biztanleria Aktiboaren Inkestaren arabera.
- Biztanleria Aktiboaren Inkestaren arabera, 55 urtetik gorako pertsonen sektoreko enpleguaren % 40 ordezkatzeko dute, eta atzerriarrek % 50; ratioa % 77raino igotzen da etxeetan, etxez etxeko zaintza pertsonaletako langileen enplegatzaile gisa.
- **Egoitzetan edo beste zerbitzu batzuetan lan egiten duten pertsonen prestakuntza-maila handiagoa da etxeetan lan egiten dutenena baino.** Horrez gain, Zainlab Huben inkestaren datuen arabera, egindako ikasketa horien homologazio maila oso baxua da, eta hori oso garrantzitsua da kontuan hartzen badugu ZBLEan lan egiten duten pertsona gehienak beste herrialde batzuetakoak direla.
- Zainlab Huben inkestak honako hau adierazten du: **etxez etxeko langileen % 38k ez du ZBLEaren jarduerari lotutako prestakuntza ofizialik.**
- Egoitzetako behin-behinekotasuna % 24koa da eta ostaturik gabeko zerbitzuetan % 28koa, eta lanaldien herena lanaldi partzialekoak dira, afiliazio datuei erreparatuz.
- Zainlab Huben inkestak adierazten du inkestan parte hartu duten pertsonen % 91k kontratua duela, nahiz eta egoitzetan ehuneko hori % 80ra jaisten den. Enplegatzaileak bi etxe edo gehiago direnean, % 68k bakarrik daukate kontratua.
- Zainlab Huben inkestaren emaitzek erakusten dute ZBLEko jardueretako kontratuen herena lanaldi partzialekoak direla, % 33 txandakakoak, % 70 arratsaldeko lanaldietakoak eta % 22 gauekoak. Etxeetan lan egiten duten inkestatuen % 50ek baino gehiagok “barneko” gisa lan egiten du.
- Osasun eta gizarte-zerbitzuen sektorean irabaziek gora egin zuten arren, oraindik ere genero arrakala dago, eta urteko batez besteko soldata txikiagoa da beste sektoreetan baino. Egoitza-zentroetako urteko batez besteko ordainsari gordina 37.054 €-koa da, 24.500 €-koa ELZn eta 18.539 €-koa mendekotasuna duten pertsonak zaintzen dituzten etxeko langileen kasuan (azken datu hori, Zainlab Huben inkestaren emaitzei erreparatuta).
- Zainlab Huben inkestaren arabera, etxez etxeko langileen % 60 inguruk lanez aldatu nahi du, sektore berean, batez ere lan-baldintzak hobetzeko eta lan-egonkortasuna irabazteko.

2. AUKERA BERRIAK / OKUPAZIOAK ZAINZAREN ETA BIZITZA LUZERAREN EKONOMIAN

- Lanbidek SISPE Eskaintzen Fitxategi Estatistikoa aztertu du, eta, horren arabera, ZBLEaren lanbideetako eskaintzen % 23 baino ez dira mugagabeak, eta % 25 baino ez lanaldi osokoak. **2016az geroztik, sektore horretako eskaintzak % 64 igo dira, sektore guztietako batez bestekoa % 22 igotzearekin konparatuta.**
- Lanbideren kontratazio-erregistroei erreparatuz, 2023an, kontratuen % 10 eta Euskadin kontratatutako pertsonen % 7,3 ZBLEaren jardueretarako izan ziren. Sektorearen dinamismoaz gain, guztizko kontratazioan duen pisu handiak lotura du kontratu-errotazioaren indize handiarekin (3,6), jarduera guztien batez bestekoa baino handiagoa (2,6). Egoitzetako jardueri dagokienez, indize hori are handiagoa da (5,4).
- Lanbideren kontratazio-erregistroek honako hau adierazten dute: **2023an, egoitzetako eta ostaturik gabeko jardueretako kontratu gehienak aldi baterakoak izan ziren; etxeetan, berriz, % 85 mugagabeak izan ziren.**
- Era berean, kontratazio-erregistroen arabera, ZBLEan kontratatutako pertsonen % 83 emakumeak dira; gehienek 20 eta 44 urte artean dituzte; % 71 Euskadin jaiotakoak dira, eta % 40k derrigorrezko mailara arteko ikasketak dituzte (% 40).
- Lanbidek egiten duen Lan Munduan Sartzeko Azterketak adierazten duenez, 2022ko abenduan, ZBLEaren prestakuntza-zikloetako batez besteko okupazio-tasa % 85ekoa da, eta Profesionaltasun Ziurtagirietakoa (PZ), % 76koa.
- Euskadiko enpresetan lanpostuak betetzeko zailtasunei eta prestakuntza-beharrei buruzko inkestak, Lanbidek 2022an egindakoak, adierazten du Euskadiko osasun-sektoreko eta gizarte-zerbitzuetako enpresen % 78k zailtasunak izan zituztela langileak aurkitzeko. **Enpresen % 85ek hurrengo 2 urteetan langile berriak kontratatzea aurreikusten du.**
- **Futurelanek aurreikusten du 2024-2035erako % 38 haziko direla erakundeetako zaintza-enpleguak eta % 33 ostaturik gabeko gizarte-zerbitzuak.** Horrez gain, honako kalkulu hau egin du: **2035era arte, erakundeetako langileen % 67 ordezkatu beharko da, % 66 ostaturik gabeko gizarte-zerbitzuetan eta % 49 etxeko lanetan.** Horrekin guztiarekin, 2024tik 2035era bitartean 8.717 eta 3.622 enplegu-aukera garbi sortuko dira erakundeetan eta ostaturik gabeko gizarte-zerbitzuetan, hurrenez hurren, eta 7.405 enplegu-aukera garbi etxeko lanetan. Futurelanek uste du 2035era arte langile defizita egongo dela egoitzetako osasun zaintzetan, hau da, ez dela profesionalen eskaintza nahikorik egongo sektoreko enplegu beharrei erantzuteko.
- Futurelanen proiektzioak funtsezko lanbideetara eraman dira, proiektu honen esparruan eraikitako hurbilketa propiotik abiatuta, eta kalkulatu da 2035erako 1.700 lanpostu gehiago sortuko direla gerokultoreentzat, 1.200 etxeko laguntzako laguntzaileentzat eta 3.000 adinekoen zaintzan aritzen diren etxeko langileentzat; 4.300, 3.600 eta 8.000 enplegu-aukera garbiak izango dituzte, hurrenez hurren, ordezkapenagatiko eskaera kontuan hartuta.
- Lanbidek enplegu-eskatzaileei buruzko SISPE Eskaintzen Fitxategi Estatistikoa aztertu du, eta ondorioztatu du 2023ko abenduan 30.115 pertsona ari zirela lan bila ZBLEan. Eskatzaileen % 32 bakarrik zegoen langabezian, % 92 emakumeak ziren, bi herenek 45 urte edo gehiago dituzte, % 76k nazionalitate espainiarra dute, % 49k derrigorrezko edo behegaroko ikasketak dituzte eta % 13k bakarrik jasotzen dute prestazio ekonomikoren bat.

3. ENPLEGURAKO PRESTAKUNTZA-BEHARRAK, ZAINZAREN ETA BIZITZA-LUZERAREN EKONOMIAN

- Lanbidek emandako datuen arabera, 2018z geroztik, **ZBLEan PZ bat lortu dutenen kopurua % 75 igo da**. Gainera, % 21 hazi da azken 10 urteetan ZBLEarekin lotutako prestakuntza-zikloetatik ateratakoen kopurua, eta nabarmentzekoak dira Mendekotasun Egoeran dauden Pertsonen Arretan (% 48) eta Gizarteratzean (% 35) izandako igoerak.
- ZainLab Huben galdetutako pertsonen erdiek bigarren mailako ikasketak dituzte.
- Zainlab Huben inkestaren bidez galdetutako pertsonen % 51k beste formazio bat dauka zaintza sektorearekin lotuta (ez ofiziala), eta, kasu gehienetan (%60), formazio hori 100 ordutik gorakoa da.
- **ZainLab Huben inkestatutako pertsonen % 18k zailtasunak ditu trebatzeko, eta horien arteko nagusia lana eta prestakuntza bateratzea da. Inkestatutako pertsonen erdiei eragiten die horrek**. Emaitza horrek ez du ordezkutzen adinekoak etxean zaintzen dituzten langile gehienek kolektiboaren errealitatea, galdetutako pertsona gehienek parte hartu baitute edo parte hartzen ari baitziren inkesta egin zen unean beren beharretara egokitutako metodologiei, formatuei eta ordutegiari buruzko prestakuntzetan.
- FUNDAEren datuen arabera, **2023an, osasun-sektoreko eta gizarte-zerbitzuetako langileen % 7k baino ez du egin etengabeko prestakuntza**, eta parte-hartzaileen % 78 emakumeak dira. Parte-hartzaileen % 17 giza baliabideen kudeaketan trebatu ziren, eta parte-hartzaile gehien izan zituen arloa izan zen hori.
- 2022an Lanbiden egin zen Euskadiko enpresetan lanpostuak betetzeko zailtasunei eta prestakuntza-beharrei buruzko inkesta iturri gisa hartuta, sektoreko enpresek gehien eskatzen dituzten gaitasunak gaitasun psikosozialak eta komunikaziokoak dira, osasun-arretako teknikekin, larrialdiei buruzko ezagutzekin, elkarlaneko gaitasunekin eta autogestiokoekin batera.
- Lan-eskaintzen azterketaren arabera, **jarrera-gaitasunak gehiago baloratzen dira erakundeetan, eta etxez etxeko zaintzan, aldiz, gaitasun teknikoak dira nagusi**. Etxeen aldetik, gaitasun tekniko eta jarrerazko gaitasun gutxiago eskatzen dituzte.
- Sektorean enplegua eskatzen duten 4 pertsonatik hiruk interesa dute prestakuntza ez-ofizialetan, eta horrek etengabeko prestakuntzaren eta garapen profesionalaren eskaera handia adierazten du. Gainera, inkestan kontsultatutako pertsonen profila kontuan hartuta, batez ere arreta soziosanitarioko PZak lortzera bideratutako prestakuntza-ekintzetan parte hartu duten pertsonak, inkestatutako pertsonen % 78k zaintza-lanetarako titulazio ofizialak lortzeko interesa erakutsi du, bai etxean, bai erakundeetan.
- Zainlab Huben inkestaren emaitzek agerian utzi dute honako hau: **interes nabarmena osasunarekin, arreta psikologikoarekin eta osasunarekin eta farmaziarekin lotutako prestakuntzetan**. Interes txikia, aldiz, gaitasun transbertsaletan eta gaitasun digitaletan: informatika (% 3), administrazioa (% 2)... Honako hau ere adierazten dute: **etxeetan lan egiten duten pertsonen aldetik, zaintza fisikoaren behar handia**. Horrez gain, ZainLab Huben galdetutako pertsonen bi herenek informazioa eta orientazioa jasotzeko interesa dute, zaintzekin lotutako beste prestakuntza mota batzuei buruz. Etxeko langileen herenak zaintza psikosozialen beharra adierazten du, eta bi herenek harreman sozialak hobetzeko beharra.

IKERKETAREN ONDORIOAK ETA GOMENDIOAK

- **Estatistika-analisiaren konplexutasuna:** iturrien aniztasuna, sailkapenak eta lan-merkatuaren datuetara iristeko zailtasuna funtsezko zereginetan. Erregistro xeheago eta bereziago baten beharra bizitegi-establezimenduetan (GZGEE), EELZn (adib. EELZ publikoko udalek egindako informazio-ematea sistematizatzea), eta etxeetako langileei inkesta iraunkorra egitearena (ZainLab Huben inkesta).
- **Zaintzaren eta Bizitza Luzeraren Ekonomia enplegu-sektore bat da Euskadin:** bai enpleguari egin dion ekarpenagatik eta azken urteetan izan duen hazkundeagatik (lanpostuen eta biztanleria landunaren igoera, eskaintzen eta kontratuen bilakaera positiboa, laneratze-tasa handiak...), bai Futurelanek enplegu-aukera garbiak sortzeko dituen asmoengatik, kontuan izanik jardueraren bilakaera eta langileen mugikortasun handiak eta adin aurreratuak eragindako ordezkapen-beharrak. Funtsezko sektorea da enplegu-politika aktiboetarako, eta eskaria eskaintzarekin egokitu beharko da, profesionalen defizita egon baitaiteke.
- **Enpleguaren ezaugarriak:** sektore oso feminizatua, bereziki etxeetako lanaren kasuan, biztanleria immigrantearen proportzio altua eta kualifikazio maila baxua dituena. Era berean, lan-baldintzek (behin-behinekotasuna, partzialtasuna...) eta soldata-desberdintasunek alde nabarmena erakusten dute udal-erakunde eta -zerbitzuetan egiten den lanarekin alderatuta. Gaur egun sektorean lan egiten duten pertsona eskatzaileen proportzio handiak eta ZainLab Huben inkestaren emaitzek adierazten dute etxeko langileen erdiek baino gehiagok lana aldatuko luketela eta % 68k bakarrik dutela kontratua lan egiten duten etxe guztietan; halaber, lan-baldintzak eta sektorearen egonkortasuna hobetzeko beharra azpimarratzen dute. Azken batean, beharrezkoa da sektoreko enpleguaren kalitatean sakonduko duten politikak lantzen jarraitzea.

CONCLUSIONES DEL ESTUDIO Y RECOMENDACIONES

- **Prestakuntza, sektorea duintzeko funtsezko bektorea:** etxeko langileen ia erdiek ez dute prestakuntza ofizialik adinekoen zaintzan, baina % 75ek lortu nahi dute. Lau pertsonatik hiruk zaintzarekin lotutako prestakuntza ez-ofizialak eskatzen dituzte. Azken urteetan kualifikatutako pertsonen kopurua handitu den arren, prestakuntzarako oztopoak daude oraindik, batez ere barneko langileentzat. Sektoreak parte-hartze txikiagoa du etengabeko prestakuntzan, batez ere ikasketa-maila apalagoa duten pertsonen artean; beren jarduera etxeetan egiten duten langile asko. Etxeen sektorerako lan-eskaintzetan gaitasunen eskaria txikiagoa da udal-erakunde edo -zerbitzuekin alderatuta, eta horrek erakusten du gizartea gutxi kontzientziatzen dela gaitze-beharrari buruz. Gehien eskatzen diren gaitasun teknikoak hauek dira: trebetasun psikosozialak, arreta-teknikak eta osasun-zaintza espezifikoak, eta kalitatearen eta segurtasunaren kudeaketa. Gaitasun transbertsaletan, gaitasun sozialak eta komunikaziokoak nabarmentzen dira, eta, ondoren, elkarlanerako eta autogestiorako gaitasunak. Bestalde, etxeetan lan egiten duten pertsonentzako prestakuntzarik eskatuena adinekoen zaintzan, adinekoen osasun fisiko eta mentalean, eta sektoreko langileen beraien zaintza fisikoetan zentratzen dira.
- **Beste zerbitzu batzuk:** prestakuntzaz gain, etxeetako langileek beste informazio- eta orientazio-zerbitzu batzuk eskatzen dituzte, gai hauei buruzkoak: prestakuntza- eta enplegu-aukerak, lan-araudia eta eskubideak... eta zaintza fisikoa eta emozionala, gizarte-harremanak eta sektore-sareak sortzea eta haietan parte hartzea sustatzea helburu duten zerbitzuak. Zerbitzu horiek guztiek lotura argia dute sektorearen erakargarritasunaren hobekuntzarekin, kalitatearekin eta enpleguaren duintzearekin.